

[Eusk/Cast Ante la huelga de carceleros españoles

AMNISTIAREN ALDEKO ETA ERREPRESIOAREN AURKAKO MUGIMENDUA :: 14/11/2018
Entre el 17 y el 20 de noviembre

Kartzelari espanyiarren grebaren aurrean

Azaroaren 17tik 20ra bitartean Az, 2018/11/14 - 02:14 argitaratua

Espaniako kartzelariekin azaroaren 17tik 20ra bitartean deitutako grebaren aurrean, Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak honakoa adierazi nahi du:

Greba honen ondorioz, espanyiar Estatuak bahituta duen ezein presok ez du bermatuta edukiko asteburu honetan senide edo lagunen bisita jaso ahal izatea. Ez da kasuala, gainera, greba hau asteburuan hastea, izan ere sistemaren txakur diren kartzelarien xedea baita presoak bahitu gisa erabiltzea euren aldarrikapenak egiteko. Era berean eta aurrekoetan bezala, ospitalerako irteerak atzeratuak izango dira presoen osasunaren kalterako, patioko orduetan murrizketak izango dituzte, eta, oro har, presoak are eta gehiago zigortzeko erreminta bikaina bilakatuko dute greba.

Komunikazio eskubideei dagokienez, gogora dezagun zeintzuk diren preso politikoen baldintzak: astero, interbenitura dauden bi eskutitz (kartzelako zuzendaritzak irakurtzen ditu) bidaltzeko eta heltzen zaizkien bezain beste jasotzeko (baita ere interbenitura) eskubidea, normalean hilabete bateko epeaz, legeak 15 egunez atxiki daitezkeela dioen arren; astean bost minutuko zortzi dei egiteko eskubidea (interbenitura); astean 40 minutuko bisita bat jasotzeko eskubidea (interbenitura eta kristal batek banatuta); hilean ordu eta erdiko aurrez aurreko bisita familiar bat (interbenitura) eta bikotekidea izanez gero aurrez aurreko bisita intimo bat (azken hau, salbuespen moduan, interbenitu gabe) edukitzeko eskubidea.

Langile borrokaz mozorrotutako greba honetan kartzelariekin soldatua igoera eskatzen dute, baina batez ere neurri errepresiboen gogortzea ekarriko lukeen iaz onartutako protokolo bat praktikan jartzea, kartzelariak Autoritate Publiko bihurtuz eta lesioen parterik aurkeztu gabe ere kartzelariaren bertsioa aintzat hartuko lukeena preso batek eraso egin diela salatuko balute.

Euren aldarrikapenak egiteko orduan, kartzelariekin etengabe aipatzen dituzte presoen partez jasotzen dituzten erasoak eta hauen aurrean sufritzen duten babesgabetasuna. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da, izan ere presoen kontrako erasoak etengabeak baitira kartzelarien aldetik: jipoiak, eskubideei dagozkien arauen betetze eza, asistentzia mediku eza, isolamendu moduluak, umiliazioak, irainak eta abar luze bat dira eguneroko kontu Spainiako kartzeletan, telebistan luxuzko hotelak bailiran aurkezten dizkiguten zulo beltz horietan. Hau guztia, harresiek eta espetxe zaintzako epaileek kartzelariei eskaintzen dieten zigorgabetasunarekin.

Ez dezagun ahaztu kartzela (eta ondorioz kartzelariak ere) langileriaren bizi baldintzak

zapaltzen dituen sistema kapitalistaren zutabe nagusietako bat dela eta, hortaz, ez ditugula langiletzat hartzen besteei askatasuna lapurtzeaz bizi diren horiek. Kartzeletan, salbuespenak salbuespen, langile pobreak eta militante politikoak baino ez dituzte giltzaperatzen, eta kartzelariak kartzelen jabeen txakurrak baino ez dira.

Gure elkartasun osoa sindikatu erreakzionarioen greba honen ondorioak pairatuko dituzten preso eta senide guztiei.

Euskal Herria, 2018ko azaroaren 14a.

Amnistiaaren Aldeko eta Errepresioaren Aukako Mugimendua

Ante la huelga de carceleros españoles

Entre el 17 y el 20 de noviembre

Ante la huelga convocada por los carceleros españoles entre los días 17 y 20 de noviembre, el Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión quiere expresar lo siguiente:

Como consecuencia de esta huelga, este fin de semana no habrá presx que tenga garantizado poder ser visitadx por familiares o amigxs. No es casual, además, que esta huelga comience en fin de semana, ya que el objetivo de estos carceleros perros del sistema es el de utilizar a lxs presxs como rehenes para hacer sus reivindicaciones. Asimismo y como en anteriores veces, las salidas al hospital serán retrasadas en detrimento de la salud de lxs presxs, las horas de patio se verán reducidas y, en general, convertirán la huelga en una herramienta perfecta para castigarlxs aún más.

En lo que respecta a los derechos de comunicación, hay que recordar cuales son las condiciones de lxs presxs políticxs: derecho al envío de dos cartas semanales y a la recepción de cuantas les lleguen, todas ellas intervenidas (son leídas por la dirección de la cárcel), normalmente por un plazo de alrededor de un mes a pesar de que la ley dice que el tiempo máximo de intervención es de 15 días; derecho a ocho llamadas de cinco minutos cada semana (intervenidas); derecho a recibir una visita semanal de 40 minutos (intervenida y con un cristal en medio); derecho a un vis a vis familiar de hora y media cada mes (intervenido) y, en caso de tener pareja, un vis a vis íntimo (este último y como excepción, sin intervenir).

En esta huelga camuflada de lucha obrera, los carceleros demandan una subida salarial pero, sobre todo, demandan poner en práctica un protocolo aprobado el pasado año que les convierte en Autoridad Pública y que daría por buena la versión de los carceleros que denunciaran haber sufrido agresiones por parte de presxs, aún cuando no presentaran parte de lesiones.

A la hora de hacer sus reivindicaciones, los carceleros citan de manera constante los ataques que sufren por parte de lxs presxs y la situación de desamparo que padecen. Sin embargo, la realidad es muy diferente y son lxs presxs lxs que sufren constantes ataques:

palizas, incumplimiento de las normas que hacen referencia a derechos, falta de asistencia médica, módulos de aislamiento, humillaciones, insultos y un largo etcétera son el pan de cada día en las cárceles españolas, esos agujeros negros que en las televisiones nos presentan como hoteles de lujo. Todo esto con la impunidad que los muros y los jueces de vigilancia penitenciaria ofrecen a los carceleros.

No olvidemos que la cárcel (y por lo tanto también los carceleros) es uno de los pilares fundamentales de este sistema capitalista que pisotea las condiciones de vida de la clase trabajadora y que, por ello, no consideramos trabajadores a quienes viven de robar la libertad al resto. En las cárceles, excepciones aparte, solo encierran a trabajadorxs pobres y a militantes políticxs, y los carceleros no son más que los perros de los dueños de las prisiones.

Toda nuestra solidaridad a todxs lxs presxs y familiares que sufrirán las consecuencias de esta huelga de sindicatos reaccionarios.

En Euskal Herria, a 14 de noviembre de 2018.

Movimiento Pro Amnistía y Contra la Represión

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-ante-la-huelga>